

A black and white photograph showing several children sitting at a table, focused on a craft project. They are using various materials like paper and glue. The lighting is soft, highlighting their concentration. The background is slightly blurred, emphasizing the children's activity.

Koko jantziak
prestatzer

TXIKITTO

2014ko otsaila

142



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Jaimito, nola joan dira notak?

- Ipar Poloan bezala, ama.

- Eta nola da hori?

- Zero azpitik ama, zero azpitik.

Lucia, Yair, Asier eta Aimar

Jaimito medikura joango da eta amatxok esaten dio:

- Zure izena galdetzerakoan Jaimito esan. Zurea adina galdetzerakoan zortzi urte dituzula esan, eta beste gauza bat esaterakoan "bai jauna" erantzun.

Medikura joaterakoan galdetzen dio Jaimitori:

- Zelan deitzen zara?

Zortzi.

- Adarra jotzen ari al zara?

Bai jauna!

Iker, Leire, Paula eta Leire

- Aita, termometroa jaitsi egin da.

- Asko?

- Ba bai, hamarren bat metro, leihotik erori da-eta.

Miriam, Olatz, Ane eta Ander

Bidean aurrera doaz bi sagutxo paseatzen, eta gainetik saguzarra igarotzen da:

- Zer da hori?

-galdetzen du batek-.

- Nire senargaia, pilotua da-eta.

Matematikako irakasleak Aneri ariketa hau galdetzen dio:

- Poltsiko batean 5.000€ baldin badituzu eta bestean 10.000€...

Zenbat diru duzu guztira?

- Oi, jauna! Beste norbaiten prakak jantzi ditut orduan!

Asier, Paula, June eta Unai

- Gustatzen zaizkizu zezenak?

- Bai horixe, asko.

- Orduan behia izango zara, ez?

Haizea, Nidia, Iosu eta Markel





Otsailaren lehen **Aldatze** ikastetxean "Aldatze denok gara" ekitaldia antolatu genuen urtero moduan, eta goiz zoragarria pasatu genuen ekintza ezberdinak eginez.



Gosari osasungarria **Juan Antonio Mogelen**. Eguneko lehen otorduak duen garrantziaz jabeturik, Iturburuko 5. mailako ikasleek Gosari bihotz-osasungarri kanpainan hartu dute parte. Horretarako, egun batean, ikasleak gosaldu gabe etorri ziren Ikastolara. Gosaldu aurretik elikagai eta ohitura onen inguruko bideotxo bat ikusi zuten, eta ondoren, jangelan prest izan zuten gosaria: esneki, fruta aleak, ogia, indioilar xerra eta oliba olioak dastatu zituzten.




La Salle ikastetxekook Bakearen astea ospatu genuen urtarila amaieran. Hainbat ekintza egin genituen gelan astean zehar: ipuinak kontatu, eskulanak egin, abestiak ikasi... eta baita dantza ere! Arratsaldean ospakizuna izan genuen eta primeran pasatu genuen. Globoak, usoak eta guztia askatu genituen. Pentsa zelako polita geratu zen zerua!

Otsailaren 3an San Blas eguna ospatu genuen eta goizean ilarrak egin genituenean Karmelitetako apaiza (Aita Julio) etorri zitzaigun ekarritako san blas opilak bedekintzera. Amaitzeko, otsailaren 27an, ihauteriak ospatuko ditugu eta desfilea egitera irtengo gara Eibarko kaleetara.




DENBORAPASAK

- 1 = beltza
- 2 = horia
- 3 = grisa
- 4 = laranja
- 5 = berdea
- 6 = urdina
- 7 = larrosa
- 8 = morea



K	I	T	O	L	I	Z	U	M	B	A	R	A	K	O	S	T	E	K
F	E	S	P	I	O	W	Y	O	G	U	R	R	A	T	A	O	I	L
U	L	E	T	U	P	I	N	D	E	F	O	K	R	T	A	I	R	A
T	U	R	A	Z	A	R	R	A	I	N	A	U	R	M	R	L	E	Z
H	T	Z	I	O	T	L	K	A	B	I	N	P	O	Z	I	A	K	O
N	D	A	N	O	A	S	L	I	P	D	A	F	Z	E	G	S	Z	U
A	E	R	E	P	T	O	M	A	T	E	A	Z	A	N	K	K	U	F
K	L	I	F	M	A	N	T	K	I	R	N	I	O	Q	K	O	E	N
Z	M	O	G	S	K	I	S	A	O	T	U	M	X	A	E	A	B	E

URA - TOMATEA - ARROZA - YOGURRA - OILASKOA - ARRAINA - PATATA



Koko jantziak prest?

Gain-gainean ditugu aratosteak eta, horretarako, badakizue koko jantziak prest izan beharko dituzuela. Datozen egunotan jai giroan murgilduko da Eibar eta zer ikusi eta egin ugari egongo da gure herrian.

Otsailaren 22an ekingo diegu jaiari. Zapatu horretan, Kezka Dantza taldeak antolatuta, koko-dantzak eta koko-eskea izango ditugu, goizeko 8.30etan hasita. Lehen agerraldia merkatu plazan egingo dute, eta gero koko-dantzak eta koko-eskea egingo dute Mandiola eta Aginaga auzoetako baserrietan, koko-dantzari eta koko-marruekin. Iluntzean, koko-dantzak es-

kainiko dituzte Eibarko kaleetan.

Otsailaren 27an, Eguen Zuri eguna, 15.30etatik aurrera eskolen kalejirak egingo dira. 17.00etan, Urkizun hasita eta Untzagaraino, Jainaga eta Narbaizarekin kalejira egingo da; eta ordu berean, Untzagaz, dantzaldia Lisker taldearekin. 19.00ak arte taillerak egingo dira Untzagan: ipuinetako pertsonaien kareak, makillajea eta osagarriak, Astixaren eskutik.

Otsailaren 28an, Aratoste Barixakua, 20.00etan Urkizutik abiatuko da Kaldereroen



kalejira. 20.30etan Untzagan Kaldereroen abestiak eta dantzak izango ditugu eta 21.00etan Aratosteetako pregoia botako da. 23.00etan herriko DJ-en emanaldia izango da Untzaga Plazan.

Martxoaren 1ean, Aratoste Zapatua, animazioa izango da Untzagako karpan, 12.00etan hasita. 13.30ean Aratosteetako taberna eta kartel lehiaketaren sari banaketa egingo da eta 17.00etan mozorro lehiaketa izango da Galizako Etxean. 18.00etatik 21.00etara kalejira Ustekabe fanfarrearekin, 18.30etatik 20.30etara umeentzako berbena

Untzagan Luhartz taldearekin, eta 19.00etatik 21.00etara, Untzagatik, Rpkkalean kalejira.

Martxoaren 2an, Aratoste Domeka, 11.00etan kalejira Usartza Txistulari Bandarekin, eta 17.00etan Untzagan umeentzako Playback lehiaketa. Eta 18.30etatik aurrera, umeentzako diskoteka DJ Arnorekin.

Martxoaren 4an, Aratoste Martitzena, 17.00etatik 18.30etara umeentzako jolasak izango dira Untzagan eta 18.30etan sardinen entieru txikia. 18.30etan umeentzako diskoteka ere egongo da, DJ Arnorekin.



Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu. Baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zelan ospatzen dittuzu/zenduazen aratostiak?

MAITE TELLERIA, 8 URTE

Oso dibertigarrixak dira, asko gustatzen jata koko-jaztia. Aurten sorgiñez mozorrotuko naiz, baiña oindiok ez dakat prest. Jolasak, dantzak, lagunekin jolastu... ondo pasatzen dogu aratostietan!

LORE ARREGI, 8 URTE

Oso ondo pasatzen dogu, koko jantzi bihar garalako, gehixen bat. Asko gustatzen jata eta aurten rockera jantziko naiz, baiña oindiok ez dakat guztiz prestatuta. Dantzan ibiltzen gara, jolasian, edarto pasatzen dogu...

JOSE LUIS TELLERIA, 73 URTE

Gure denporetan debekatuta eguan, baiña goguan dakat Murgizu dentistiak eskolia emoten zebala eta ezkutuan ospatzen genduala. Koko jantzi eta edarto pasatzen genduan. Baiña kalia ez, ume solteren bat igual ibiltzen zan, baiña kalia ez giñan mozorrotzen.

MARISA CABEZON, 45 URTE

Betidanik gustau izan jataz aratostiak. Famelixan danok gara oso salseruak eta aratoste zaliak. Oso ondo pasatzen genduan umetan, gaztetan, eta gaur egun be oso ondo pasatzen dogu. Eta espero dot etorkizunian be bardin jarraitzia.





ZER EGIN OLDARKERIAREKIN?

Haur Hezkuntzan ohikoa da umeen artean portaera oldarkorrek antzematea, hala nola, jo, bultza edo haginka egin eta atximurka egitea. Gehienetan umeak 5 edo 6 urte izan arte luzatzen da eta ohiko garapen prozesuaren barruan kokatu daiteke. Izan ere, Lehen Hezkuntzaren hasierako urteetan hasten dira umeak autokontrola izaten. Hala ere, normala bada ere, ez dira portaera onargarriak eta zuzentzen saiatu behar gara.

Portaera oldarkorrek ondorio txarrak izaten ditu beste umeengan (mina, zauriak... sortu ditzakeelako) baina baita eragiten dituenarengan ere. Izan ere, portaera hau errepikatzen denean, beste umeak berarekin egotea edo jolastea ekiditzen hasi daitezkeelako.

Portaera oldarkorrek erlazioatuko faktoreak:

- Gurasoen ereduak: Ez jotzeko esan eta ipurdikoa ematen badiogu, mezu kontraerriak ematen ari gatzai. Beraz esan eta egiten duguna bat etorri behar dira.
- Sentipenak adierazteko zailtasunak: Umeek zailtasunak izaten dituzte amorrua, tristura, etsipena, inseguritatea... identifikatu eta adierazteko. Oraindik heldutasuna eta hitzak falta zaizkie sentitzen duten hori adierazteko.
- Irudi edo gertaera bortitzak ikustea, hala nola film edo bideojolasak, portaera oldarkor horiek errepikatzen eraman ahal ditu.
- Lehiakortasun larregi bizitzea, adibidez anai-arreben arteko zeloan ondorioz, atentzia lortzeko.
- Frustrazioa edo stress egoerak: familian aldaketa sakonak ematen direnean adibidez: gaixotasun larriak, gurasoak banantzea, senideren baten heriotza...

Zer egin dezakegu?

- 1) Seme-alabarekin hitz egin eta halako portaerak onargarriak ez direla esan, eta bai berarentzat zein beste umeentzat, ondorio txarrak dituela azaldu.
- 2) Umeek ez dute errealitatea eta fikzioaren artean oso ondo desberdintzen, beraz hobe irudi bortitzik ikusten ez badute.
- 3) Gertatukoari buruz hausnartzen erakutsi. Zer gertatu den, zer sentitu duen, portaeraren onodrioz zer gertatu den...
- 4) Saria erabiltzen saiatu. Hau da, egoerak modu egokian (jo, bultza... egin gabe) konpontzen dituenean, atentzia eman, txalotu eta poztasuna erakutsi, besteen aurrean lorpenak goraiipatuz.
- 5) Neurriak hartu. Errietan egin eta portaera onargarria ez dela esateaz gain, ondorioak izan behar ditu portaera oldarkor horrek. Momentuan egiten ari den hori eten; jolasean bazebilen bera jolastu gabe laga, margotzen ari bazen, berak ez du margotuko... eta abar.
- 6) Irakasleekin eta familiarekin komentatu estrategia bera erabil dezazuen denok.
- 7) Denboran luzatzen bada, 8 urtetik aurrera eta lagunetik harremanetan, ikasketetan edo familia giroan eragina izaten hasten bada, profesional bati laguntza eskatu.




MEMORIA JOKOA

Zeinek ez du ezagutzen memoria-jokoa? Bikoteak bilatzeko joko hau oso dibertigarria izateaz gain, gure memoria lantzeko ere balio du. Adinaren arabera handiagoa edo txikiagoa egin dezakezue, eta zuek nahi duzuen irudiak erabiliz.

ZER BEHAR DUGU?

- Erregaloko papera
- Irudi bikoitzak
- Egurra edo kartoi potoloa
- Itsasgarria



NOLA EGITEN DA?

Lehen urratsa

Egurrezko edo kartoi potoloz karratutxoak egin. Kontutan izan zenbat bikote nahi dituzuen atera, joko handiagoa edo txikiagoa egiteko.

Bigarren urratsa

Fitxen atzeko aldean apaintzeko, erabili erregalorako paper polit bat. Eta aurreko aldean, berriz, aurrez aukeratu ditugun irudiak pegatu. Gogoratu bikoteak izan behar dutela, hau da, irudi bera bi aldiz agertuko beharko da.

Hirugarren urratsa

Umearen gustuen arabera, bere pertsonaiarik gustokuenak, animaliak, frutak edo koloreak erabil ditzakegu.

etxeko SUKALDARIA

PLATANO-PIRULETAK

Gurasoek askotan esaten dute umeei fruta jatea kostatu egiten zaizuela. Askotan irudimen handia jarri behar izaten da, nola edo hala, umeei fruta jateko. Ba asko pentsatu gabe, hemen duzue modu polit eta desberdin bat fruta jateko, kasu honetan platanoa.

OSAGIAK

- ✓ 3 platano ez oso helduak
- ✓ 150 gr. txokolate erdigozo
- ✓ 150 gr. txokolate zuri
- ✓ 3 goilarakada gurin
- ✓ Txokolatezko fideoak eta txirbilak
- ✓ 6 izozki-makiltxo

Pausoak:

- 1.- Zuritu platanoak eta erditik moztu. Sartu makiltxoak izozkia balitz moduan eta utzi hozten hozkailuan.
- 2.- Ontzi batean txokolate erdigozoa goilarakada eta erdi gurinarekin nahastu eta mikrouhinean sartu urtu dadin. Gauza berbera egingo dugu txokolate zuriarekin ere.
- 3.- Atera platanoak hozkailutik eta estali txokolate urtuarekin bi aldeetatik. Txokolatezko fideoekin apaindu eta itxaron txokolatea gogortu arte, minutu bat inguru. Sartu izozkailuan eta utzi bertan ordubete inguru.



ARIES

Aries maitea, zer duzu buru horretan? Erdi tontotuta zabilta, burua beste nonbaiten duzu eta ez diozu inori jaramonik egiten. Maiteminduta ote zaude? Hori ematen du behintzat!

TAURUS

Erlojuari begiratzen al diozu? Ezetz ematen du, beti berandu iristen zarelako leku guztietara. Zuri ez litzazuke itzaroten egotea gustatuko, ezta? Ba pentsatu gehiago besteengan.

GEMINIS

Poz-pozik dituzu etxeokak. Zure portaera ezinhoa da eta horrela jarraitu beharko zenuke, bihurrikeria askorik egin gabe. Horrek saria ekarriko dizu. Adi ibili.

CANCER

Ondo pentsatuz gero, jakingo duzu arrazoia zurea dela eta lagun hori oker dagoela. Hala ere, lasai, bera ere konturatuko da denborarekin.

LEO

Den-dena ezin duzu lortu. Ez al zaude konforme daukazun guztiarekin? Gehiago baloratu beharko zenuke daukazuna, ez da gutxi-eta.

VIRGO

Kirolari fina eginda zaude. Kanean ere beti korrika. Jarraitu horrela, kirola egitea oso osasungarria da-eta. Kolore gorriak zortea ekarriko dizu.

LIBRA

Batzuetan aspergarriak badira ere, nagusiek kontatzen dizkizuten istorioak baliagarriak izan daitezke etorkizunerako. Asko ikas dezakezu. Aprobetxatu.

SCORPIUS

Datozen asteotan 6 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea horia izango da. Zaindu eztarria eta garbiago jan, badakizu, fruta, barazkiak...

SAGITARIUS

Etxekoekin lasai egoteko dituzuen momentuak ondo aprobetxatu behar dituzu; afaltzeko orduan familiar eserita egotea garrantzitsua da, eguneko kontuak kontatzeko. Telebistak itxarongo du!

CAPRICORNIUS

Irakasleari kasu gehiago egin beharko zenioke eta gelan adi egon! Irakasleak esaten duena oso garrantzitsua da-eta. Egiten duzuna baino askoz gehiago egin dezakezu, beraz... animo!

ACUARIUS

Beti marmarrean zabilta azken aldian. Jesusss... Ze aspergarria horrela zaudenean!! Jarrioz irrifarra bizitzari, eta konpondu beharrekoak konpondu behingoz.

PISCIS


Datozen asteotan indartsu ibiliko zara, pila berriak jarrita izango bazenitu moduan: etxeko lanak egin, etxean lagundu, eskolan fin-fin, kirolean ere bai... Hartu atsedean pixkat!

www.gipuzkoakomuseoak.net

Sarri gertatzen zaigu asteburua ailegatu eta umeekin zer egin ez dakigula. Web orri honetan Gipuzkoako museoen berri izango duzue. Oso informazio zabala eta argia eskaintzen du gainera: non dagoen, zer erakusten duen, harremanetan jartzeko zer egin, ordutegia, noiz dagoen itxita eta noiz zabalik, prezioa... Aukera zabala duzue.

www.geoparkea.com

Euskal kostaldeko Geoparkeari buruzko web orria dugu honakoa. Bertan, geoparkea deritzona zer den azaltzen digute eta horrez gainera, bertan egin daitezkeen bisita gidatuen berri eman eta zer ikus daitezkeen ere azaltzen du web orri honek. Ikus daitezkeen argazkiak ere oso politak dira. Zer egin ez dakigunean plan polit bat egiteko aukera!



TANIAREN HARTZA

Tania eta Ana ahizpak dira. Taniak badu pelutxezko hartz bat eta asko maite du. Hartzak futbolean egiten du Taniarekin, baina oso geldiro ematen dio baloiari.



NORK BEHAR DU KAPELA MAGIKO BAT?

Clara Claramuntek badu kapela bat bere nahi guztiak egia bihurtzen dizkiona, baina bakarrik ibiltzen da beti. Laster ikusiko du bere kapela baino gauza magikoagorik badela, bakardadeari aurre egiten laguntzen dion zerbait. Ipuin honek erakutsiko dizunez, gauza asko edukitzeak ez zaitu zoriontsuago egiten.




TXERRIKOME PIRATA

Itsaso zabalean zihoazela, Jule txerrikumea marruka hasi zen, isats kiribilean marrazo batek hozka egin balio bezala. Orduan, zalapartan, mastako sareari muturrarekin heldu eta itsasora bota zuen. Baina uretatik atera zutenean, sareak distira egin zuen, urrez eta zilarrez beteta.



HAMAR ERLE LARANJA-SAILEAN

Hamar erle burrunban laranja-sailean; bederatzik laranja-lorea usaintzen dute, zortzik maitasun-kantuak ziztukatzen dituzte, zazpik zuku gozoa miazkatzen dute, sei historik hosto dabilta...



ITSASOA MALETA BATEAN

Gure aitak maleta serio eta ilun bat zeukan... Nik ordea, zerbait distiratsua nahi nuen... Eta sartu. Maletaren barruan sartu nahi nuen inoiz inork sartu ez zuena... eta lortu egin genuen!



ONDARROAKO PIRATEN ABENTURA BERRIAK

Andonik Ondarroako lagunak gutuna jaso du: "astillerura bueltatu behar du". Kutxi oso triste dago Bakarne mamuek preso hartu dutelako eta Bakarne askatzea dute helburu. Mamuek, ordea, ezkutuko mezu bat gordetzen dute eta Andoniren lana mezuaren esanahia asmatzea izango da.

AMA LURRA

Elezaharrak dioenez, aspaldi hartan lurra ilun-ilun zegoen. Ez zen gaurik, ez zen egunik. Iluntasuna zen nagusi. Eta iluntasun hartan baziren izpiritu gaiztoak, izpiritu maltzurak, beren gordelekuetatik aterata, gizakien aurka mehatxuka eta erasoka ibiltzen zirenak. Gauzak horrela, egun batez, gizaki haiek Ama Lurrarengana jo zuten izpiritu gaizto eta maltzur haien aurka borrokatzeko laguntza eske.

Ama Lurrak, errekuak entzun ondoren, errukituta, laguntza ematea erabaki zuen, eta alaba bat sortu zuen: **ILARGIA**. Horrela jaiotzen zen gaua.

Baina ilargiaren argia ez zen nahikoa izan eta izpiritu maltzur eta gaizto haiek, beren gordelekuetatik aterata, oraindik ere mehatxuka eta erasoka jarraitzen zuten. Eta gizakiak han joan ziren berriro Ama Lurrarengana errekuak, laguntza eske.


Ama Lurrak, errekuak entzun ondoren, errukituta, berriz ere laguntza ematea erabaki zuen, eta beste alaba bat sortu zuen: **EGUZKIA**. Eguzkia sortu zuen eta horrela jaiotzen zen eguna. Pozez beterik, bihotz-bihotzez eskertu zuten gizakiek argitasun hura, baina eguzkia lurraren magalean atsedena hartzera sartzen zenean gaua jaiotzen zen, eta, gauarekin batera, gaizkile gaizto eta maltzur haiek, beren gordelekuetatik aterata, mehatxuka eta erasoka jarraitzen zuten.

Hirugarren aldiz jo zuten gizakiek Ama Lurrarengana, errekuak, laguntza eske: Ama Lurra, Ama Lurra, lagundu eiguzu, izpiritu gaiztoek erasoka jarraitzen dute eta!

Ama Lurrak, errekuak entzun ondoren, errukituta, berriz ere laguntza ematea erabaki zuen, eta oraingoan oso gauza berezia sortu zuen: **EGUZKI LOREA**. **EGUZKI LOREA** sortu zuen.

Eta agindu bat eman zien gizakiei: jar zezatela **EGUZKI LOREA** etxeko atariko atean izpiritu gaizto haiengandik babestuak izateko. Eta halaxe egin zuten gizakiek, eta halaxe gertatu zen: ez zuten gehiago gaizkile haien mehatxurik eta erasorik izan.

Harrez geroztik, gizakiak lasai eta bake ederrean bizi izan ziren.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

KUKUAREN GANDORRA

A

ntzina kukuak oso gandor dotorea zuen, halako ile mataza harro-harro bat buru gainean. Behin basoilarra joan zitzaion bisitan. Bisitan... edo... eskean. "Hi, hau eta zera eta bestea", zeharka berba egiten



hasi zen eta azkenean..." Aizu, ezkontza batera joan behar dut eta... utziko al didazu zure gandorra?". Eta kuku esku zabalak utzi egin zion.

Ospakizunera agertu zenean, ezkon-berriei baino arreta handiagoa eskaini zioten basoilarrari. "Oooh!", eta "aaah!", gonbidatu guztiak egiten zuten asperen. Oilar arrunt batek kukurruku luzea eginda goraiatu zuen haren edertasuna.

Gonbidatu guztiak zeuden jakin minez. Azkenean batek egin zion galdera:

"Nork utzi dizu gandorra?".

"Utzi? Salomon erregeak oparitu dit, eman dizkiodan aholkuen truke".

"Oooh! Salomon errege jakintsuari aholkuak eman! Aaah! Ze jakintsua bera! Eta ederra, ze ederra bera!".

Denak aho zabalik utzi zituen. Hark hartu zuen ospea! Eta bera pozik, jakina. Harro harro zebilen.

Basoilar harroputza, basoilar gezurtia, basoilar lapurra! Lapurra, bai.


Kukuak gandorra itzultzeko eskatu zionean –gaixoak burua hotzitura zeukan- ez zion ba erantzun:

"Hotzak bazaude jantzi txano bat. Niri bost axola!".

Kuku gizajoari begiak puztu zitzaizkion negarrari eutsi ezinik. Oso triste bizi da ha-

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

rrazkero; bere kantua entzutea baino ez dago. Jendeak uste du ku-ku, ku-ku esaten duela, baina oker dago. Badakizue zer esaten duen? Pu-pu, pu-pu... kukua oso minduta dagoelako.



zu margolari!